

Bals bat abestu eta dantzatu, bikoteka.	Mahai gainean igo eta <i>sevillana</i> moduan dantzatu.	Modan dagoen kanta abestu eta dantzatu.
Euskal kanta ezagun bat abestu, opera abeslari batek eginen lukeen moduan.	Gelan dagoen norbaiti maitasuna adierazi.	Gelakideei besarkada bana eman.
Zure familiar gehien lotsatzen zaituena azaldu.	Tutorea imitatu.	Lotsagatik euskara erabili ez duzun egoera bat azaldu.
Azaldu bizi izan duzun egoerarik lotsagarriena.	Zure gorputzetik gutxien maite duzun parte deskribatu.	Gurasoak azkenaldian zerekin engainatu dituzun azaldu.
Azaldu zer den gehien gorrotatzen duzuna eta zergatik.	Azaldu zein den zure gustuko kolorea eta zergatik.	Maitasun kontuetan, kalabazak eman dizkizuten aldia kontatu.
Preserbatiboa nola jarri azaldu.	Lotsagatik kontatu duzun gezur bat esan.	Kanpotar bati euskalduna izatea zer den azaldu.
Euskara erabiltzeko dituzun mugak azaldu.	Zergatik, euskalduna izanda, ez duzu euskara erabiltzen?	Azaldu euskaraz ari zarenean beste batek zuzentzeak zer sentiarazten dizun.
Gelako lagun baten ezaugarri fisiko politenak azaldu.	Gelako lagun baten nortasunaren ezaugarri politenak azaldu.	Pentsatu zer ezin duzun esan euskaraz (eta erdaraz bai!).
Taldekide guztiek abestu "Guk euskaraz" kanta sorbaldatik elkarri helduta.	Rapeatu "Euskal Herrian euskaraz".	Kontatu txiste bat.
Bota irrintzia.	Esan, okertu gabe: "Akerrak adarrak okerrak ditu, okerrak adarrak okerrak ditu".	Dantzatu indiarren euriaren dantza.
Esan bost irain euskaraz.	Esan bost hitz goxo euskaraz.	Eman bi musu arropa beltza dutenei.